



eta zati handi bat galdu egin zuten. Halaber, sagarrek iazkoek baino azukre gehiago izan dute, baina azken emaitzarekin oso gustura daude sagardogileak. «Kalitate aldetik, sektorea gai honen inguruan lan handia egiten ari da», izan ere, gogorazi beharra dago lehen etxerako egiten zela sagardoa, eta gehienez ingurukoentzat. Egun, esku artean daukaten negozioaren tamainaz ohartu eta gero, asko profesionaldu dira sagardogileak.

«Honek onarpena ekarri du bai Euskal Herrian, baita hemendik kanpo ere», adierazi zuen Migel Zapirain sagardogileak. Jon Mikel Múrua diputatuak ederki nabarmendu zuenez, «baserri ingurutik kanpora, kaletarron edari bihurtu da sagardoa».

Arrazoirik ez zitzaion falta, eta azken finean, sagardogileek defendatu zuten, «edateko erraza da». «Produktu naturala da, alkohol gutxikoa». Aurtengo sagardoa oso usain gozokoa da, hori-berdaska eta lasto kolorekoa adituen esanetan.

Astigarragako udaletxea utzi eta gero, Petritegi sagardotegian denboraldiari hasiera emateko urteroko erritualari ekin zioten. Pertsonaia ospetsu batek ohorezko sagardo tragoxka hartu behar du, inork dastatu aurretik. Aurtengoa, Pedro Migel Etxenikeri egokitu zitzaion ia bost milioi litro sagardotik lehen basokada probatu beharreko zeregina.

Eli Laburu alkateak adierazi zuenez, «sagardoa eta kultura uztartzeko ekimen honek harro sentiarazten gaitu». Ez da Etxenikeri egiten dituen lan mardulekin parekatzekoa, baina urduritasun izpi bat agerian utzi zuen, «hau da Astigarragako sagardo berria» esaldia hainbat kamara aurrean esateko uanean.

Zientzilariak sagardoa gustuko zuela adierazi zuen, «Donostian ikasle nintzeneko garaia ekartzen dit gogora», eta irribarre artean komentatzen zuenez, atzerriko zenbait lagun txundituta geratzen ziren aurrenekoz sagardotegi bat bisitatzen zutenean, «jende artean sortzen zen giroagatik».

Upel artean asko ibiltzen diren zenbait lagunek ez zuten sagardo berriaren zaporea dastatzeko aukerarik galdu, eta hantxe zeuden, hala nola, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso, baso bana eskuarteetan zutela, eta bapo jan eta edan ondoren, bertsoei ekin zieten.

Txoxberri festa bihartik aurrera

Inaugurazio ofizialaren ostean, Astigarragako tabernariak eta hainbat kultur taldek Txoxberri festa antolatu dute bihartik hasita eta igandea bitartean. «Astigarragan sagardoak garrantzia handia daukanez, txotxaren denboraldi ofiziala zabaltzeaz gain, herrian giroa sortu nahi genuen», nabarmendu zuten antolatzaileek.

Giroa sortzeko gogo horretatik abiatuta, ekitaldi batzuk prestatu dituzte. J. Barandiaran plazan karpa erraldoi batek sagardotegi baten itxura hartuko du. Bihar zabalduko dute arratsaldeko zortzietan, eta herri afariaren ostean, Upeletan erronka ikuskizuna izango da, dantza, bertsoa eta trikitixa uztartzen dituen alegia. Larunbatean bazkaria eta afaria eskainiko dituzte karpan eta musikarekin girota erakuseta eta mahai-inguruari tarte egingo diote. Hori bai, «giro herrikoia sortzeko asmoz», eta beti sagardoa abiapuntutzat hartuta. •

Pedro Migel Etxenikeri zabaldu zuen txotx denboraldia, non zenbait lagun bildu zen upeletan. Astigarragako tabernariak astebururako festa aurkeztu zuten.

Aurten ia bost milioi litro sagardo egin dituzte ohi baino azukre gehiago daukaten sagarrekin

Baserriko edaria, kaletarron atsegina

Zabaldu da dagoeneko sagardoaren aurtengo denboraldia. Astigarragako sagardogileak nahi duenari edari hau dastatzeko beta eskaini zioten atzokoan. Ohorezko lehen tragoxka Pedro Migel Etxenikeri zientzilariak edan

bazuen ere, lagun ugari bildu zen atzo Petritegi sagardotegian, aurtengo emaitza probatzeko. Kolore hori berdaska eta zapore atseginekoa omen da eta erdia baino gehiago euskal sagarrekin egindakoa

Makina bat lagun bildu zen atzo Astigarragako udaletxean aurtengo sagardoaren nondik norakoak ezagutzeko irrikatan. Izan ere, urtetik urtera jakin-min handiagoa sortzen baitu edari honen inguruan eratzen den giroak, bai gure artean, bai Euskal Herriatik kanpokoan artean. Astigarragako sagardogileak urtero bezala sagardo berriaren eguna ospatu zuten atzo, «edari hau dastatu nahi duenak aukera eduk dezan».

1998ko udazkenean sagar oso ona zetorren, baina uda oso lehorra eta eguzkitsua izan zen. Ondorioz, sagarrondoek zeukaten sagar kopuru handiegia helzteko gaitasunik ez zuten izan